



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2018ko abenduaren 12a

151. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### A SAILA:

##### **Foru lege proiektuak:**

—Foru Lege proiektua, Nafarroako Memoria Historikoaren Tokiei buruzkoa. Herritarrekiko eta Erakundee-  
kiko Harremanetako Batzordeak onetsitako irizpena (2. or.).

#### B SAILA:

##### **Foru lege proposamenak:**

—Foru Lege proposamena, Nafarroako Babes Zibilari eta Larrialdien Kudeaketari buruzko uztailaren 1eko  
8/2005 Foru Legea aldatzen duena. Geroa Bai, EH Bildu Nafarroa eta Podemos-Ahal Dugu-Orain Bai  
talde parlamentarioek eta Izquierda-Ezkerra foru parlamentarien elkarteak aurkeztu dute (12. or.).

#### E SAILA:

##### **Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuia premiatzen da urtarrilaren 16ko 5/2006 Foru Dekretuan  
eranskin bat sar dezan baserri motako etxebizitzaren bizigarritasuna arautzeko. Eskubide Sozietako Ba-  
tzordeak onetsia (23. or.).

---

**A saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

## **Foru Lege proiektua, Nafarroako Memoria Historikoaren Tokiei buruzkoa.**

### *HERRITARREKIKO ETA ERAKUNDEEKIKO HARREMANETAKO BATZORDEAK ONETSITAKO IRIZPENA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 138.3 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Batzordeak Nafarroako Memoria Historikoaren Tokiei buruzko Foru Lege proiektuari buruz onetsitako irizpena. Proiektua hori 2018ko urriaren 26ko 127. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2018ko abenduaren 11n

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **IRIZPENA**

Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Batzordeak 2018ko abenduaren 4an eta 11n egindako bileran onetsia.

### **Nafarroako Memoria Historikoaren Tokiei buruzko Foru Lege proiektua**

#### **ZIOEN AZALPENA**

Gaur egungo gizarteetan memoria ezinbesteko tresna bilakatu da egiazko bizikidetza justu eta baketsua eraikitze bidean aurrera egiteko. Iragan hurbilean demokraziaren kontrako erregimenen indarkeriaren traumak astindu dituen gizarteetan, ahanzturaz eta memoria ezaz jokatzeari guztiz bidegabea da biktimekin. Memoria eta gertatutakoaren oroimena dira bide bakarrak traumaz jabetzeko, biktimen minarekin eta egoera bidegabeekin enpatia sentitzeko, biktimen egia, justizia eta erreparaziorako eskubidea gauzatzeko duten politika publikoak garatzeko; horrenbestez, bide horretatik lortuko da egiazko bizikidetza, begirada etorkizunean paratzen duena eta halakorik berriz ez gertatzeko bermeak ezartzeko lanari helduko

diona. Izan ere, memoria mota asko daude, dudarik gabe, baina justua izanzen bada, kritikoa izan behar du ezinbestez, eta iragana konpromisotik aztertu: konpromisoa giza eskubideekin, pertsonaren duintasunarekin, demokraziarekin, berdintasunarekin, justizia sozialarekin eta askatasunarekin.

Memoria indarkeria eta trauma gogoratzen harago doa; iraganarekin lotutako zerbait baino gehiago da. Memoria, lehenengo eta behin, etorkizunari dagokio, eta, gizarte demokratikoetan, estuki eta fermuki loturik dago bakean eta giza eskubideetan oinarritutako kulturaren sustapenarekin. Memoria ezinbesteko tresna da hainbat balio gizarte osoan sustatu eta hedatzeko, askatasuna, begirunea, tolerantzia, negoziazioa eta akordioa, hain zuzen ere, bai eta horiek hurrengo belaunaldiei transmititzeko ere.

Gertatutakoaren memoria transmititzen da artxiboetan gordetako agirien bidez, gertaera haieko protagonista eta lekuko izan zirenen ahotik, eta familien baitan gorde eta helarazten den erretratoan; irudiak, soinu grabaketak eta ikus-entzunezkoak ere transmisio bideak dira. Finean, memoria gureganaino iritsi diren arrasto bidez transmititzen da. Baina tokiak ere memoriaren transmisiorako bideak dira, gure gizartea bakean eta askatasunez garatzea baldintzatu eta eragotzi zuten gertaera latz eta tragiko haien tokiak alegia: hilobi komunak, non milaka lagun ehortzi baitzituzten, bortxaz desagerrarazi eta hil ondoren; bidegabeekin espetxeratu eta errepresaliatutako milaka lagunentzako kartzela eta errepresio tokiak; edo herri-lanak, beren borondatearen kontra lan egitera behartutako presoek eraiki zituztenak, legez eratu eta herritarrek libreki aukeratu zuten Errepublikaren alde egiteagatik zigorra jaso ondoren.

Nafarroako Memoria Historikoaren Tokiak dira, izuarekin eta indarkeriarekin lotutako tokiak, zeinetan giza eskubideen era guztietako urraketak egin baitzituzten botere zilegiaren kontra altxatu, eta indarkeriaz baliatu zirenek beren ideiak, ideologia eta proiektu politikoa defendatu eta inposatzeko.

Eta Nafarroako Memoria Historikoaren Tokiak dira, halaber, demokrazian bizitako hamarkada hauetan familiek, memoriaren aldeko elkarteek eta zenbait toki entitatek eta erakundeek eraikitako oroigarriak. Indarkeria bidegabe eta ez-zilegiaren ondorioak pairatu zituzten milaka pertsona haien oroimenez sortutako guneak dira. Memoriaren legatu hori gordetzeko, biktimei ohore egiteko, haien familiei erreparazioa emateko, eta etorkizuneko belaunaldiei bakearen, bizikidetzaren eta errespetuaren balioak transmititzeko asmoz egindako tokiak dira.

Foru lege honen helburua memoriaren toki horiek babestea da, haien seinaleztapena eta zainketa arautzea, eta haiek ezagutzera ematea, terrorearen toki izandakoak oroimenerako eta bakearen eta bizikidetzaren balioak transmititzeko gune bilaka daitezten.

## I. TITULUA Xedapen orokorrak

### 1. artikulua. Xedea.

Foru lege honen xedea da Nafarroako memoria historikoaren tokiak deklaratu, babestu, zaindu eta haien berri zabaltzea, memoriaren transmisiorako gune izan daitezten eta bakean eta bizikidetzan oinarritutako kultura sustatzeko lagundu dezaten, balio hauekin bat:

a) Giza eskubideen eta biktimen eskubide hauen errespetua: egia, justizia eta erreparazioa izatekoa eta berriz ez gertatzeko bermeak ezartzekoa.

b) Memoria ezinbesteko tresna dela gizarte etikoagoak, justuagoak eta demokratikoagoak eraikitzeke, gure iragan traumatikoari modu kritikoa begiratzen diotenak eta biktimen erreparazioaren alde lan egiten dutenak.

c) Begirunea, tolerantzia, negoziazioa, akordioa eta elkartasuna sustatzea, egiazko bizikidetzara justu eta baketsua eraikitzeke modua den aldetik.

### 2. artikulua. Nafarroako memoria historikoaren tokiak.

1. Memoria historikoaren tokia gune fisiko bat da, Nafarroan dagoena eta halakotzat deklaraturata

eta inskribaturata, eta Foru Komunitatearen interesekoa, memoriaren ondare historikoa den aldetik, bertan garrantzi bereziko gertaerak izan zirelako, 1936ko kolpe militarren eta ondoko errepresio frankistaren ondorioz herritarren kontra erabilitako errepresioarekin eta bortxakeriarekin lotutakoak. Hartara, halakotzat deklaratu ahalko dira honakoak:

a) 1936ko kolpe militarren ondotik eta haren ondorioz desagerrarazitakoak eta fusilatutakoak ehortzi zituzten hobiak edo ehorzketa-lekuak, kolektiboak nahiz banakoak.

b) Indarkeria eta errepresio frankista jasan zutenak atxilotzeko eta hiltzeko tokiak.

c) Frankismoan preso egon zirenen bortxazko lanak baliatuz eraikitako herri-lanak.

2. Era berean, Nafarroako memoria historikoaren tokia da halakotzat deklaratu eta inskribaturata edozein toki, gertaera haiekin lotura zuzen eta historikorik izan gabe ere, biktimen familiek, memoriaren aldeko elkarteek, erakundeek eta administrazio publikoek gerora sortutakoa errepresio haren biktimentzako oroimen, aitortza eta erreparazio gisa.

3. Nafarroako memoria historikoaren tokiak, alderdi fisikoaz gain, biktimentzako omenaldi eta erreparazio guneak dira, eta foru lege honek ematen dien babes berezia izanzen dutenez, kasu bakoitzean beharrezkotzat diren neurriak aplikatuko zaizkie, kontuan hartuz haien kokalekua, bertan gertatutakoaren garrantzia, egoera, hirigintza aldeko egokitasuna eta haien eragin ekonomiko eta soziala, eta beti zainduko da haien izaera, memoriaren eta erreparazioaren aldekoa.

### 3. artikulua. Printzipio orokorrak.

Nafarroako Foru Komunitateak, bere eskumene esparruan, honako printzipio hauen arabera jardunen du memoria historikoaren tokiei dagokienez:

a) Babesaren izaera orokorra. Botere publikoen eta herritarren betebeharra da foru lege honetan ezarritako neurriak hartzea Nafarroako memoria historikoaren tokiak babesteko.

b) Erakundeen arteko lankidetzara. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak lankidetzan jardunen du Estatuko Administrazio Orokorrarekin eta toki entitateekin Nafarroako memoria historikoaren tokiak deklaratu, babestu, zaindu eta haien berri zabaltzeko.

c) Ondasunen titularrekiko elkarlana. Nafarroako Administrazio Publikoak elkarlanean arituko dira, foru lege honetan ezarritakoaren esparruan,

Nafarroako memoria historikoaren tokien parte diren ondasunen titularrekin, partikularrak nahiz erakundeak izan, horiek deklaratu, babestu, zaindu eta haien berri zabaltzeko.

d) Sustapena. Nafarroako Aurrekontu Orokurretan jasoko da Nafarroako memoria historikoaren tokiak babestu eta zaintzea, baita haien zabal-kundea ere, ekitaldi bakoitzeko aurrekontuetako aukeren arabera.

e) Irisgarritasuna. Foru lege honetan eta irisgarritasun unibertsalerako baldintzei buruzko araudian ezarritako baldintzekin, Nafarroako memoria historikoaren tokiak irisgarriak izanen dira pertsona guztientzat, eta aukera berdintasuna eta diskriminazio eza bermatuko dira, ezagutu eta errespetatu daitezten lagutzeko.

f) Zabalkundea. Nafarroako Administrazio Publikoek Nafarroako memoria historikoaren tokiak sustatuko dituzte eta haien zabalkunde-lana eginen dute. Haien buruzko ikasketak, bestalde, Nafarroako hezkuntza-sistemaren barnean egon behar dira.

g) Berdintasuna. Nafarroako Administrazio Publikoek aintzat hartuko dute gizon eta emakumeen arteko genero berdintasuna, eta genero ikuspegia erantsiko dute, Nafarroako memoria historikoaren tokiei buruzko lanean.

**4. artikulua.** Memoria historikoa terminoaren esparru kronologikoa.

1. Foru lege honen ondorioetarako, memoria historikoa hartzen duen aldi kronologikoa 1936ko uztaileko kolpe militarretik 1978ko abenduaren 29ko Konstituzioak indarra hartu artekoa da.

2. Data horiek ez dira kontuan hartuko foru lege honen 2. artikuluko 2. apartatuan aipatzen diren memoriaren aldeko guneen kasuan.

**5. artikulua.** Eskumenak.

1. Foru Komunitateko Administrazioak honako eskumen hauek ditu Nafarroako memoria historikoaren tokiei dagokionez:

a) Haien zainketa eta babesa bermatzea, izaera orokorrekarekin.

b) Haien aldeko kautelazko neurriak hartzea edo, beharrezkoa bada, nahitaezko desjabetzea.

c) Haien sustapena eta zabalkundea.

d) Zehapen ahalmena erabiltzea, foru lege honetan ezarritako baldintzetan.

e) Nafarroako Memoria Historikoaren Tokien Erregistroa kudeatzea.

f) Foru lege honek berriaz esleitzen dizkion gainerako eskumenak.

2. Foru Komunitateko Administrazioaren eskumen horiek memoria historikoaren eskumena duen departamentuaren bidez beteko dira, Nafarroako Gobernuari kide anitzeko organo gisa dagozkionak eta gainerako departamentuekin koordinatzea ukatu gabe.

3. Era berean, Memoria Historikoaren arloko Koordinazio Batzorde Teknikoak aholku lanak beteko ditu departamentu eskudunarentzat. Batzorde hori azaroaren 26ko 33/2013 Foru Legearen bidez sortu zen.

## II. TITULUA

### Nafarroako Memoria Historikoaren Tokien Erregistroa

**6. artikulua.** Eraketa, izaera eta edukia.

1. Nafarroako Memoria Historikoaren Tokien Erregistroa eratzen da, foru lege honetan definitutako ezaugarriak izateagatik halakotzat deklaratu diren gune, higiezin edo aurkintzen publikizitate eta kontrola egiteko tresna izan dadin.

2. Nafarroako Memoria Historikoaren Tokien Erregistroak eduki hau izanen du:

a) Memoriaren toki inskribatu bakoitzak bere folio edo fitxa izanen du erregistroan.

b) Bertan jaso behar dira prozedurari hasiera emateko ebazpena eta Nafarroako memoria historikoaren toki bakoitzaren deklarazioa eta inskripzio ordena ematen duena. Horrekin batera, erregistroko edukia aldatzen duten ebazpenak ere agertu behar dira.

c) Toki bakoitzari dagokionez, hura identifikatzen duten ezaugarriak eta haren gainean ezarritzen diren behin-behineko, kautelazko eta behin betiko neurriak deskribatuko dira.

d) Memoriaren toki gisa identifikatutako ondasunei eragiten dieten eskualdaketak eta esku-haritzeak inskribatuko dira.

e) Ondasun inskribatuetan eragina duten administrazio egintza guztiak jasoko dira.

3. Nafarroako Memoria Historikoaren Tokien Erregistroa publikoa da eta kontsulta, telematikoa nahiz bertatik bertarakoa, doakoa izanen da.

4. Nafarroako Memoria Historikoaren Tokien Erregistroa antolatu, kudeatu eta haren zabalkundea egitea memoria historikoaren arloan eskumena duen departamentuari dagokio, ukatu gabe beste departamentu batzuek ondare historiko eta kulturalaren arloan dituzten eskumenak.

**7. artikulua.** Deklarazioa eta inskripzioa egiteko prozedura.

Nafarroako memoria historikoaren toki baten deklarazioa eta inskripzioa prozedura honi jarraituz eginen dira:

a) Prozedurari hasiera emanen zaio ofizioz, organo eskudunaren ebazpen bidez edo edozein pertsona fisiko nahiz juridikoren eskaera arrazoi-tuaren ondorioz. Azken kasu horretan, hasiera emateko ebazpena hiru hilabeteko epean eman eta jakinarazi beharko da; hala ez bada, eskaera ezetsi dela ulertu behar da.

Hasiera emateko ebazpenak hauek jasoko ditu gutxienez:

- Tokiaren identifikazioa.
- Deklarazioa justifikatzen duten balio material, historiko edo sinbolikoen identifikazioa.
- Deklarazioaren eta inskripzioaren xede den ondasunaren zatien deskribapena eta zehaztapena.
- Tokiaren mugaketa kartografikoa, koordena-tu geografikoak barne.
- Ondasunaren jabeen eta ukituta gerta daitezkeen pertsona fisiko eta juridikoen identifikazioa.
- Zainketa, seinaleztapen eta zabalkunderako aplikatzen ahal diren neurri partikularrak eta ekin-tzak zehaztea.
- Ondasuna babestu eta zaintzeko beharrezkoak izan daitezkeen kautelazko neurriak zehaztea.

b) Deklarazio eta inskripzioarako prozedurari hasiera ematen dion ebazpenak berekin ekarriko du ondasunaren kautelazko idatzoharra egitea Nafarroako Memoria Historikoaren Tokien Erregistroan, eta berehalako eta zuzeneko ondorioa izanen da foru lege honek ezarritako babes araubidea behin-behinekoz aplikatzea inskribatutako tokietarako. Kautelaz, udalak ez du emanen lurzati-tiketik, eraikuntzarik edo eraispenik egiteko lizentziarik, eta etenda geldituko dira ordurako emanda daudenak. Era berean, kautelaz etenen da babestu nahi den ondasunaren balioak arriskuan jartzen dituen esku-hartze oro. Kautelazko etena amaituko da prozedura ebatzi eta, kasu denean, hartu beharreko neurriak hartzen direnean. Hala ere, memoria historikoaren arloko eskumena duen departamentuak, prozeduraren tramitazioan zehar, jarduketa horiek erabaki ahalko ditu, ikusten badu ez dela arriskuan jartzen inskribatu nahi den ondasunaren balioa.

c) Hasiera emateko ebazpen hori Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da.

d) Deklarazio eta inskripzioarako prozeduran nahitaezkoak izanen dira tramite hauek: jendaurrean jartzekoa eta informazio espresa eta entzunaldia ematekoa bai zuzenean ukitutako partikularrei bai tokia kokatuta dagoen toki entitateari.

d) Deklarazio eta inskripzioarako prozeduran nahitaezkoak izanen dira tramite hauek:

– Iragarkia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunetik gutxienez hilabete batez jendaurrean egotea. Iragarkiak honako hauek jaso beharko ditu: deklarazioaren xedea, horren justifikazioa eta tokia identifikatzeko balioko duten datu oinarrikoenak, bai eta espedientea Administrazioaren zein bulegotan egonen den erakusgai.

– Berariazko jakinarazpena, lehen aipatutako informazio berarekin; eta jakinarazpen horretatik aurrera gutxienez hilabete bateko epean entzunaldia ematea bai zuzenean ukitutako partikularrei bai toki entitateari ere.

e) Entzunaldia emateko tramitea eta jendaurrean jartzekoa amaituta, espedientea Memoria Historikoaren arloko Koordinazio Batzorde Teknikora igorriko da (azaroaren 26ko 33/2013 Foru Legearen bidez sortutakoa), hiru hilabeteko epean gehienez ere nahitaezko txosten loteslea eman dezan, deklarazioa eta erregistroko inskripzioa egiteko.

f) Deklarazioa eta erregistroko inskripzioa egiteko prozeduraren ebazpena Nafarroako Gobernuak hartu beharreko erabakiaren bidez emanen da, memoria historikoaren arloan eskumena duen departamentuko titularrak proposamena egin ondoren.

g) Erabaki hori jakinaraziko zaie zuzenean ukitutako interesdunei, eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da; ondoren, Nafarroako Memoria Historikoaren Tokien Erregistroan inskribatuko da.

h) Deklarazioa eta inskripzioak bidezkoak ez badira, prozedurari hasiera eman dion organoak hura amaitzea eta prebentziozko idatzoharra ezabatzea ebatziko du.

i) Prozedurari hasiera ematen zaionetik hamabi hilabete iragaten badira ebazpena eman eta jakinarazi gabe, prozedura iraungi eginen da. Prozedura iraungi dela behin deklaratu ondoren, ezin izanen da ondasun horren gaineko prozedura berri bati hasiera eman hurrengo hiru urteetan, non ez den ondasunaren titularrak eskatuta egiten.

**8. artikulua.** Inskripzioaren aldaketa eta eze-reztea.

1. Memoriaren arloko eskumena duen departamentuak proposatzen ahalko du Nafarroako Memoria Historikoaren Tokien Erregistroan inskribatutako tokien inskripzioa aldatzea, bai eta eze-reztea ere, inskripzioa eragin zuten inguruabarrak aldatu edo desagertzen badira, kasuan kasukoa.

2. Tokien inskripzioa aldatu eta ezerezteko prozedura horien deklarazio eta inskripziorako aurreko artikuluan ezarritako bera izanen da.

**9. artikulua.** Inskripzioaren eta prebentziozko idatzoharraren ondorioak.

1. Nafarroako memoria historikoaren tokiaren deklarazioak eta Erregistroan haren inskripzioa edo prebentziozko idatzoharra egiteak aitortzea berezia ematea eta foru lege honetan ezarritako babes araubidea aplikatzea ekarriko du.

2. Lursailak eta higiezinak Nafarroako Memoria Historikoaren Tokien Erregistroan memoriaren toki gisa inskribatzeak berekin dakar, ondorio guztietarako, onura publikoa edo interes soziala deklaratzeko, nahitaezko desjabetzerako eta bide-zortasuna baliatzeko ere.

### III. TITULUA

#### Memoria historikoaren tokien babes eta zainketa

**10. artikulua.** Babeserako araubide orokorra.

1. Nafarroako memoria historikoaren toki gisa inskribatutako lursail edo higiezinaren titularrek betebeharrak izanen dituzte kasu guztietan:

a) Nafarroako Foru Komunitateari erraztea ondasun horien zainketa, babes eta mantentzea, memoria historikoaren tokiak diren aldetik, haien balioak zainduta daudela bermatze aldera.

b) Ondasunak erabiltzea haien izaerari datzekion balioekin bateragarria izateko moduan.

c) Nafarroako Gobernuari erraztea ondasunak suntsitu edo honda daitezzen eragozte.

2. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak bermatuko du memoria historikoaren tokien zainketa eta babes foru lege honetan ezarritakoarekin bat.

3. Memoria historikoaren arloan eskumena duen departamentuari dagokio aholku ematea zainketarako betebeharrak betetzeko behar diren lan eta jarduketek buruz, baita dagozkion gastuak ordaintzea ere.

4. Memoria historikoaren arloan eskuduna den departamentuak Nafarroako memoria historikoaren tokiak kontserbatzen, mantentzen eta zaharberritzen lagunduko du, horretarako ezarritako aurrekontu-partiden bidez. Laguntza hori erregelamenduz ezarriko da.

**11. artikulua.** Betebeharrak eta eskubideak.

1. Nafarroako memoria historikoaren toki gisa inskribatutako lursail edo higiezinaren jabeek, haien gaineko eskubideen titularrek edo edukizaille besterik ez direnek betebeharrak izanen dituzte:

a) Memoria historikoaren arloan eskumena duen departamentuari jakinaraztea edozein titulu, arrazoi edo inguruabar dela-eta inskribatutako ondasunei dagokienez egiten dituzten eskualdaketa edo jarduketak, bai eta horiek jasandako kalteak edo bestelako ukipenak ere.

b) Tokien seinaleztapena egiten uztea, foru lege honen 15. artikuluan ezarritakoarekin bat.

c) Jendeak bisitatzen uztea, gutxienez lau egun hilabetez, aurrez ezarritako egun eta orduetan. Memoria historikoaren arloan eskumena duen departamentuak betebeharrak betetzetik salbuesten ahalko du, osorik edo hein batean, justifikatutako arrazoiak daudenean. Horrez gain, departamentuak ikuskapenak egin ditzan utzi beharko du, eta administrazio publiko eskudunek tokiaren egoeraz eta erabileraz eskatzen duten informazioa eman.

d) Foru lege honek edo antolamendu juridikoak berariaz ezartzen dizkien gainerako betebeharrak guztiak.

2. Edozein inguruabarrengatik norbaitek giza gorpuzkinak aurkitzen baditu Nafarroako hilobimapan mugatutako eremuetan edo hortik kanpo, berehala jakinarazi beharko dio Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren baitan memoria historikoaren arloko eskumena duen organoari.

3. Nafarroako memoria historikoaren toki gisa inskribatutako lursail edo higiezinaren gaineko eskubideen titularrek edo edukizaille besterik ez direnek eskubideak izanen dituzte:

a) Eskumena duen departamentutik haien kontserbaziorako, babeserako edo aldaketarako laguntza tekniko jasotzea.

b) Diru-laguntzak edo bestelako sustapen neurriak eskatzea, haren kontserbaziorako.

**12. artikulua.** Betebeharrak ez betetzea.

1. Foru lege honen 10. artikuluan Erregistroan inskribatutako ondasunei dagokienez ezarritako betebeharrak ez betetzeak ahalmena ematen dio

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari zuzenean egiteko beharrezkoak diren esku-hartzeak, eta horren berri emanen dio berehala ondasunaren titularrari, memoriaren ondasun hori zaindu eta babesteko beharrezkoa bada.

2. Foru lege honen 10.1 eta 11.1 artikuluetan ezarritako betebeharrak ez betetzeak ekar dezake Foru Komunitateko Administrazioak nahitaez desjabetzea Nafarroako memoria historikoaren toki gisa inskribatutako lursailak edo higiezinak, onura publikoaren edo interes sozialaren kariaz.

3. Foru lege honen 10. eta 11. artikuluetan ezarritako betebeharrak betetzen ez badira, departamentu eskudunak hertsapen isunak ezartzen ahalko ditu foru lege honetan xedatutakoarekin bat.

### **13. artikulua.** Babes eta zainketa araubidea.

1. Foru Komunitateko Administrazioak edozein lan edo esku-hartze eteten ahalko du, eta beharrezkoak diren kautelazko neurriak ezarri, ondasun baten osotasuna babesteko, ondoren Nafarroako Memoria Historikoaren Tokien Erregistroan inskribatzeko komeni direnak. Babesteko kautelazko neurrien iraupena ez da hiru hilabetezko gorakoa izanen, eta horien barnean eman behar zaio hasiera dagokion deklarazio prozedurari, hala behar den kasuan.

2. Toki entitateek Foru Komunitateko Administrazioari jakinarazi beharko dizkiote memoriaren toki bati eragiten dioten eraispen, obra edo esku-hartzerako lizentzien eskaerak, jasotzen dituztenak, tramitatzen hasi aurretik.

3. Erregistroan inskribatzea eragin zuten balioak babesteko, beharrezkoa izanen da memoria historikoaren arloan eskumena duen departamentuak baimena ematea Nafarroako memoria historikoaren toki batean edozein aldaketa egiteko, haren zainketan eragin dezakeenean; horretarako, tramite hauek bete beharko dira:

a) Baimen eskaerari zainketarako proiektu bat erantsi beharko zaio, honakoak barne: tokiari buruzko azterketa historiko bat, egungo egoeraren diagnostikoa, jarduketarako proposamen bat eta jarduketa betetzeko aurrekontu ekonomiko bat; teknikari eskudunek izenpetu beharko du proiektua.

b) Prozedura ebaztean baloratuko da obraren edo esku-hartzearen proiektua eta inskribatutako ondasunaren balioen zainketan duen eragina, eta adieraziko da lanek bete behar dituzten baldintza bereziak, baldin badaude, bai eta ondasuna babestu eta zaintzeko beharrezkotzat jotzen diren gomendio teknikoak eta zuzentzaileak. Espedien-

te administratiboan Memoria Historikoaren arloko Koordinazio Batzorde Teknikoaren txostena sartu beharko da. Departamentuak hiru hilabetezko epea izanen du, baimen eskaerari buruz ebazteko, hura aurkezten den egunetik aurrera kontatuta. Epe hori berriazko ebazpena jakinarazi gabe iraganik, interesdunak ulertu beharko du baimen eskaera ezetsi egin dela.

Edonola ere, adieraziko da zein jarduketa edo obratan ez da inolako prozedurarik jarraitu behar, babestu behar den ondasunaren balioan eragiten ez duelako.

c) Ulertuko da baimena irauten dela urtebete iragaten bada eskaeraren xede ziren jarduketak hasi gabe.

4. Memoria historikoaren arloko eskumena duen departamentuak galarazten ahalko du Erregistroan inskribatutako memoria historikoaren toki batean eraispena edo edozein motatako lan edo esku-hartzea, aurreko apartatuan aipatzen den baimenik ez badu.

5. Aurreko apartatuetan arautzen den guztia aplikatuko da Erregistroan prebentziozko idatzoharrarekin jasota dauden memoria historikoaren tokietako jarduketetan.

### **14. artikulua.** Lurraldearen antolamenduko, hirigintzako eta ingurumeneko tresnei dagokien babesa.

1. Lurralde eta hirigintzaren plangintzako tresnetan, memoria historikoaren tokiei edo Erregistroan prebentziozko idatzoharrarekin jasota daudenei eragiten badiete, ondasun horien babeserako eskatzen den babes bereziko araubidearekin bat datozen antolamendu determinazioak ezarriko dira.

2. Aurreko apartatuan aurreikusitako ondorioetarako, plangintzarako espediente horiek memoria historikoaren arloan eskumena duen departamentuaren nahitaezko adostasuna izan beharko dute.

3. Aurreko apartatuan aipatzen den txostena sei hilabetezko epean emanen da eskatzen denetik hasita. Epe horretan eman ezean, aldekoa dela ulertuko da.

4. Indarreko legeriaren arabera ingurumeneko prebentzio eta kontrolerako tresnen menpe dauden jarduketan kasuan, behar diren babes eta kautelazko neurriak hartuko dira Nafarroako Memoria Historikoaren Tokien Erregistroan inskribatuta edo prebentziozko idatzoharrarekin jasota dauden ondasunak zaintzeko.

#### IV. TITULUA

##### Nafarroako memoria historikoaren tokien eta haien balioen zabalkundea eta hedapena

**15. artikulua.** Nafarroako memoria historikoaren tokien seinaleztapena.

1. Arlo honetan eskumena duen departamentuak seinaleztapena eta gertatutakoa interpretatzeko bitartekoak ezarriko ditu Nafarroako memoria historikoaren toki bakoitzean, eta ezarriko du zein diren zabalkunderako egoki diren materialak, baldintzak eta bideak, irisgarritasun unibertsalaren arloko indarreko araudian ezarritakoarekin bat.

2. Departamentuak ezarriko du memoria historikoaren tokien identitate grafikoa, seinaleztapen eta hedapen ofiziala egiteko, identitate korporatiboaren arloko eta Foru Komunitateko toponimoen erabilera ofizialaren arloko araudi indardunarekin bat.

**16. artikulua.** Nafarroako memoria historikoaren tokien mapa.

1. Memoria historikoaren arloko eskumena duen departamentuak mapa digital bat egin eta eguneratuta izanen du, herritar ororentzat sarbidea izanen duena; bertan adierazita egonen da Nafarroako memoria historikoaren tokien kokaleku geografikoa eta han gertatutakoaren berri emanen da.

2. Departamentuak, posible denean toki entitateekin eta memoriaren aldeko elkarteekin elkarlanean, memoria historikoaren ibilbideen diseinua sustatuko du, gertaera hauek ezagutzera emateko eta etorkizuneko belaunaldiei bakearen, bizikidetzaren eta giza eskubideen errespetuaren balioak transmititzen laguntzeko.

**17. artikulua.** Zabalkunderako jarduerak.

1. Memoria historikoaren arloko eskumena duen departamentuak behar diren neurriak hartuko ditu memoria historikoaren tokien hedapena eta zabalkundea egiteko, bai eta ordezkatzeko dituzten balioena ere.

2. Bestelako ekimenak ukatu gabe, departamentu horrek honakoak sustatuko ditu:

a) Unibertsitateekiko eta ikerketa zientifikorako zentroekiko elkarlana Nafarroako memoria historikoaren tokien inguruan gertatutakoa aztertu eta ikertzeko.

b) Memoria duten eskolen programa bat, Nafarroako memoria historikoaren tokiak eta han bizitako gertaerak curriculumaren jardueretan txertatzea sustatzeko; helburua izanen da bake kultura sustatzea hezkuntza maila guztietan, bai

eta errespetuan, elkartasunean eta demokrazia areagotzean oinarritutako balioak ere.

c) Elkarlanean aritzea memoriaren aldeko elkarteekin eta Nafarroako toki entitateekin, Nafarroako memoria historikoaren tokien balioa nabarmenduko duten eta Erregistroan inskribatzea eragin zuten gertaerak oroituko dituzten jarduerak gauzatzen.

3. Foru Komunitateko Administrazioak lagunduko du memoria historikoa eskurabidean jartzen informazio eta komunikazio teknologien bidez, eta haiek erabiliz zabalduko du Nafarroako memoria historikoaren tokiei buruz beharrezkoa den informazio guztia. Horrek bere baitan hartzen ditu bisita birtualak, memoriaren ondare historiko gisa garrantzi berezia duten tokietan.

#### V. TITULUA

##### Zehapen araubidea

**18. artikulua.** Araubide juridikoa.

1. Foru lege honetan ezarritako betebeharrak urratzen dituzten egiteak eta ez-egiteak titulu honetan xedatutakoaren arabera zehatuko dira, egon daitezkeen bestelako erantzukizunak ezertan ere baztertu gabe.

2. Memoria historikoaren tokien arloko zehapenak jartzeko ahalmena Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari dagokio.

3. Zehapen prozedura hastea Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren barruan memoria historikoaren arloko eskumena duen departamentuari atxikitako organo eskudunari dagokio.

4. Foru lege honetan eta legea garatzeko erregelamenduetan aurreikusten ez den orotan, zehatzeko ahalmena arloaren gaineko Estatuko araudi oinarritzekoan eta Foru Komunitatekoan xedatutakoaren arabera izanen da.

**19. artikulua.** Erantzuleak.

Foru lege honetan araututako arau-hausteen erantzuleak horien egileak dira, pertsona fisikoak edo juridikoak izan.

**20. artikulua.** Arau-haustek.

1. Memoria historikoaren tokien arloko arau-hauste administratiboak dira foru lege honetan ezarritako egiteak eta ez egiteak, baita zabarkeria hutsezkoak badira ere, eta oso astunak, astunak eta arinak izan daitezke.

2. Arau-hauste oso astunak hauek izanen dira:

a) Indusketak egitea 13. artikuluan ezarritako baimena izan gabe.



b) Segurua denean lursail batean giza gorpuzkiak daudela, desagertutako biktimenak, lursail horretan eraikitzea edo lurak mugitzea 13. artikuluan aipatzen den baimena izan gabe.

c) Nafarroako hobi-mapan sartutako lurretan biktimen hilobiak suntsitzea.

d) Zainketarako betebeharra ez betetzea, 10. artikuluan aurreikusitakoarekin bat, horren ondorioa denean Nafarroako memoria historikoaren toki gisa inskribatutako ondasunak galdu, suntsitu edo kalte konponezinak eragitea.

### 3. Arau-hauste astunak hauek izanen dira:

a) Nahi gabeko aurkikuntzak jakinarazteko betebeharra ez betetzea, justifikatutako arrazoirik gabe, 11.2 artikuluekin bat.

b) Nafarroako memoria historikoaren toki bat zaindu eta mantentze lanak egiteko betebeharrak ez betetzea, arau-hauste oso astuna ez denean.

c) Administrazioa bere zaintza edo ikuskapen eginkizunak betetzen ari dela, ikuskapen lanari trabak jartzea.

d) Nafarroako memoria historikoaren toki batean edozein obra edo esku-hartze egitea horretarako baimenik gabe, non eta ez den arau-hauste oso astuna.

### 4. Arau-hauste arinak hauek izanen dira:

a) Nafarroako memoria historikoaren tokietan bisita publikoa egiten uzteko betebeharra ez betetzea.

b) Nafarroako memoria historikoaren tokietako espazioei edo altzariei kalteak egitea, arau-hauste astuna edo oso astuna ez denean.

c) Nafarroako memoria historikoaren toki batean edozein obra edo esku-hartze egitea horretarako 13. artikuluan aipatzen den baimena izan gabe, arau-hauste astuna edo oso astuna ez denean.

5. Erregistroan inskribatzen diren Nafarroako memoria historikoaren tokiei dagokienez artikulua honetan tipifikatzen diren arau-hausteak prebentziozko idatzoharra duten ondasunei ere dagokiela ulertuko da, 7.b) artikuluan aurreikusitakoarekin bat.

### 21. artikulua. Zehapenen mailaketa.

1. Honako hauek dira arau-hausleen erantzukizuna larriagotzeko inguruabarrak:

a) Intentzionalitate edo errepikatze maila.

b) Administrazio eskudunari laguntzeko uko egitea, legez kontrako obra edo esku-hartzeak

edo gaizki egindakoak eteteko agindu administrazioak betetzeko orduan.

c) Jarduketa ustez legeztatzen duten egitatezko kasuak aldatzea, edo jarduketaren legezkotasuna frogatzen duten agiriak faltsutzea.

d) Berrerorketa. Berrerorketa egonen da, aurretik arau-hauste bat egin eta zehapena jarrita, hura jakinarazi eta hurrengo urtean mota bereko beste arau-hauste bat egiten baldin bada. Kasu horretan beharrezkoa izanen da zehapen ebazpena irmoa izatea.

2. Honako hauek dira arau-hausleen erantzukizuna arintzeko inguruabarrak:

a) Arau-haustea ekarri duen jokabideak kalte larriak eragiteko asmorik ez izatea.

b) Obrak geldiaraztea edo jardueran nahiz lurzoruaren erabileran gelditzea, norberaren borondatez, memoria historikoaren tokien arloko legezkotasuna betetzeaz arduratzen den agintari edo funtzionario publikoak ohartarazpena egin ondoren.

c) Jarduketa arau-hausleak eragindako kaltea konpontzea edo berez arintzea.

### 22. artikulua. Erantzukizunetik salbustea.

Memoria historikoaren tokien arloko arau-hauste baten erantzuleak, zehatzeko eta legezko egoera berrezartzeko jarduketak hasi aurretik, egindako kalteak konpontzen baditu eta kaltetutako errealitate fisikoa lehengorutzen badu, arau-hauste arinengatik legokiokeen erantzukizunetik salbuetsiko da. Arau-haustea astuna edo oso astuna denean, salbuetsita geldi liteke, gainerako inguruabarren arabera.

### 23. artikulua. Zehapenak.

1. Foru lege honetan tipifikatutako arau-hausteei diruzko zehapenak eta zehapen ez-diruzkoak ezartzen ahalko zaizkie.

2. Diruzko zehapenak isunak izanen dira, honako zenbateko hauek izanen dituztenak, arau-haustearen astuntasunaren arabera, eta proportzionaltasunaren printzipioa errespetatuz:

a) Arau-hauste oso astunak: 10.001etik 150.000 eurora bitarteko isuna.

b) Arau-hauste astunak: 2.001etik 10.000 eurora bitarteko isuna.

c) Arau-hauste arinak: 200dik 2.000 eurora bitarteko isuna.

3. Zehapen ez-diruzkoak zehapen osagarriak izanen dira, eta honako hauek izanen dira: memo-

ria historikoaren arloko diru-laguntza edo laguntza publikoak eskuratzeko eskubidea galtzea, gehiezin ere bi, hiru edo bost urtez, arau-hauste arin, astun eta oso astunen kasuan, hurrenez hurren; eta memoria historikoaren arloan jasotako diru-laguntza edo laguntza publikoa osorik edo partzialki itzultzea. Zehapen osagarri horiek ezarri eta mailakatzeko, bidezkoak direnean antolamendu juridikoaren arabera eta bermeak zorrotz betez, egitateen larritasuna eta haien ondorioak hartuko dira kontuan, proportzionaltasunaren printzipioarekin bat.

#### **24. artikulua.** Prozedura.

1. Memoria historikoaren tokien arloko arau-haustek salatzeak akzioa publikoa izanen da.

2. Foru lege honetan aurreikusitakoaren arabera arau-haustea izan daitezkeen jarduketan berri duten agintariak behartuta daude halakoak jakinaraztera memoria historikoaren arloan eskuduna den departamentuari.

3. Prozedurari ofizioz emanen dio hasiera organo eskudunak, dela bere ekimenez, dela goiko agintarien agindu baten ondorioz, beste organo batzuen arazoibidezko eskaeraren ondorioz edo herritarren salaketa baten ondorioz.

4. Titulu honetan ezarritako zehapenak ezartzeko, administrazio publikoen araubide juridikoaren eta zehapen-prozedura administratiboaren arloko araudian ezarritako prozedura-xedapenei jarraituko zaie.

#### **25. artikulua.** Zehatzeko eskumena.

Honako hauek izanen dira eskudunak foru lege honetan tipifikatzen diren arau-hausteengatik zehapen-espeditentek irekitzeko eta ebazteko:

a) Arau-hauste oso astunak badira, memoria historikoaren arloan eskuduna den departamentuaren titularra.

b) Arau-hauste astunak eta arinak badira, memoria historikoaren arloan eskuduna den zuzendaritza nagusiaren titularra.

**Lehen xedapen gehigarria.** 1936ko kolpe militarren ondorioz eraildako eta errepresioaren biktima izandako Nafarroako herritarrei errekonozimendua eta ordain morala emateko azaroaren 26ko 33/2013 Foru Legearen aldaketa.

1936ko kolpe militarren ondorioz eraildako eta errepresioaren biktima izandako Nafarroako herritarrei errekonozimendua eta ordain morala emateko azaroaren 26ko 33/2013 Foru Legeak aldaketa hauek izanen ditu:

**Bat.** c) eta d) letrak gehitzen zaikio 5. artikulua-ren 1. apartatuari. Testu hau izanen dute:

“c) Memoria historikoaren tokiekin zerikusia duten gai guztiei buruz indarreko legeriarekin bat eskatzen zaizkion nahitaezko txostenak egitea.

d) Batzordeko buruak planteatzen dizkien gaien buruzko txostenak egitea”.

**Bi.** Beste testu bat izanen du 9. artikulua-ren 2. apartatuak. Hona testua:

“2. Halako tokizat deklaritzen ahalko dira altxamendu militarrean, Gerra Zibilean eta diktadura frankistaren garaian izandako gertakari bereziki nabarmenei lotutakoak; esate baterako, hobi edo lurperatze-leku kolektiboak, atxilotze-lekuak, esklaboek egindako obra publikoak edo garai hartako gertakarietan nabarmendu ziren guneak. Deklarazioa egitea Nafarroako Gobernuari dago-kio, foru lege honen 5. artikuluan araututako batzordeak proposamen loteslea eginda”.

**Bigarren xedapen gehigarria.** Aurrekontuko diru erabilgarria.

Nafarroako memoria historikoaren toki bat deklaratzeko ekimenak berekin dakarrenean gastu publikoa, memoria gisa deklaratu eta inskribatzea formalizatu gorabehera, edota beharrezkoa den-an ondasuna kontserbatzeko, mantentzeko edo babesteko lanak egitea, horietan egin beharreko obren edo jarduketan finantzaketa ekitaldi bakoitzeko aurrekontuan horretarako diru erabilgarria egoteak baldintzatuko du.

#### **Xedapen gehigarri berria.**

Memoria historikoaren arloan eskuduna den departamentuak kulturaren arloan eskuduna denari helaraziko dizkio Nafarroako Memoria Historikoaren Tokien Erregistroan egiten diren inskripzioak.

**Azken xedapenetako lehenbizikoa.** Erregelamendu bidez garatzea.

Nafarroako Gobernuari ahalmena ematen zaio foru lege hau aplikatu eta garatzeak eskatzen dituen erregelamenduzko xedapen guztiak eman ditzan.

**Azken xedapenetako bigarrena.** Indarra hartzea

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.



---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

**Foru Lege proposamena, Nafarroako Babes Zibilari eta Larrialdien Kudeaketari buruzko uztailaren 1eko 8/2005 Foru Legea aldatzen duena.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko abenduaren 10ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintza-ekimena erabiliz, Geroa Bai, EH Bildu Nafarroa eta Podemos-Ahal Dugu-Orain Bai talde parlamentarioek eta Izquierda-Ezkerra foru parlamentarien elkarteak Nafarroako Babes Zibilari eta Larrialdien Kudeaketari buruzko uztailaren 1eko 8/2005 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena aurkeztu dute, eta presako eta irakurketa bakarreko prozeduraz izapidetu dadin eskatu dute.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 110. eta 148. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona ERABAKIA:

**1.** Agintzea Nafarroako Babes Zibilari eta Larrialdien Kudeaketari buruzko uztailaren 1eko 8/2005 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

**2.** Foru lege proposamena presako prozeduraz izapidetzea.

**3.** Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako, eta Nafarroako Gobernuari adieraztea bere iritzia emateko epea zortzi egunekoa dela.

Iruñean, 2018ko azaroaren 19an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**Nafarroako Babes Zibilari eta Larrialdien Kudeaketari buruzko uztailaren 1eko 8/2005 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena**

**ZIOEN AZALPENA**

Babes Zibilari buruzko urtarrilaren 21eko 2/1985 Legeak babes zibilariaren lehen arau-esparru bat ezarri zuen, garai hartako autonomia-estatu jaioberriari egokitua. Konstituzio Auzitegiak lege horren baliozkotasuna berretsi zuen zenbait epairen bidez, zeinetan Estatuari aitortu baitzitzaion eskumena duela –Konstituzioaren 149.1.29 artikulua araberak, eta, hortaz, segurtasun publikoaren baitan– ez soilik estatu-interesa gertatzen deneko larrialdiei aurre egiteko (eskura dituen baliabideak mobilizatuz), ezpada babes zibilariaren arloko zerbitzuen eta baliabideen koordinazioa bilatzeko eta babesteko ere, zerbitzu eta baliabide horiek “gutxienezko estatu-diseinu edo eredu batean” sartuta.

2/1985 Lege horren fruitu, autonomia erkidegoek eta toki entitateek beren eskumen berekiak hedatu zituzten arlo horretan; hartara, beren jarduna arautu zuten, babes zibileko beren zerbitzu berekiak taxutu zituzten eta larrialdi-mota oren kudeaketari begira aurrerabide nabarmena ekarri duten larrialdien koordinazio-organo eskudunak nahiz babes zibileko udal zerbitzu eraginkorrak garatu dituzte.

Nafarroa ez zen garapen horretatik bazter gelditu, eta, halatan, Nafarroako Babes Zibilari eta Larrialdien Kudeaketari buruzko uztailaren 1eko 8/2005 Foru Legea onetsi zuen. Foru lege horren helburua babes zibileko eta larrialdietako ekintzak antolatzea da Nafarroako Foru Komunitatearen eremuan. Horretarako, batetik, Nafarroako administrazio publiko bakoitzaren jarduketak arautu behar ziren, bai arriskuen prebentzio eta kontrol arlokoak, bai, gerta litezkeen larrialdi, katastrofe

eta hondamendi publikoen kudeaketari dagozkionak, eta, beste alde batetik, jarduera arriskutsuak hartzen dituzten establezimendu publiko eta pribatuei autobabeserako neurriak eskatu, hots, arriskua sor ditzaketen jarduerak egiten dituzten pertsona edo enpresek beraiek jarduera horien ondorioak aurreikusteko eta, horrenbestez, beren burua babesteko abian jarri behar dituztenak. Horrekin, larrialdiak kudeatzeko sistema integratu eta bateragarri bat beti eskura egotea bermatu nahi zen, Nafarroako lurralde eremuan gertatzen diren egoera kaltegarri edo arriskutsuetan edo hondamendietan egin beharreko lan guztiak egoki koordinatu, zuzendu eta kontrolatzeko.

Geroago, eta arriskuen, baliabideen eta legediaren bilakaera nahiz babes zibileko zerbitzuen ikuskeran eta antolamenduan izandako aldaketak ikusita, beste lege bat onetsi zen Babes Zibilari buruzko urtarrilaren 21eko 2/1985 Legearen ordez –Babes Zibilaren Sistema Nazionalari buruzko 17/2015 Legea, hain zuzen ere–, zeinaren helburua baita herritarrak larrialdien eta katastrofeen aitzinean babesteko sistema nazionalaren funtzionamendua indartu eta hobetuko duten mekanismoak sendotzea.

17/2015 Lege berrira egokitzeko, eta 8/2005 Foru Legearen hamahiru urtetik gorako ibilbidean hautemandako gabeziak ikusita, foru legea aldatzea komeni da, larrialdien arretaren eta kudeaketaren egungo egoerara egokitzeko.

8/2005 Foru Legea aldatzea proposatzen da, halako moduan non, babes zibileko planen definizioetan edo homologazioan 17/2015 Legera egokitzeaz gain, bestelako alderdi batzuk ere jasoko baitira. Nagusiki eta laburbilduta, honako hauek:

Nafarroako Babes Zibilaren alarma eta alerta sare bat sortzea; babes zibileko planak oinarrizko zerbitzuekin lotutako kontingentzia planetara hedatzea; autobabesaren arloko alderdiak hobetzea; herritarren lankidetzaren eta parte-hartzearen arloko beste alderdi batzuk jasotzea, bai eta babes zibilaren arloan herritarrek dauzkaren betebeharren eta eskubideen arlokoak ere; Larrialdien Kudeaketarako Zentroan datuak jasotzearen eta tratatzearen auzia zehaztea; Babes Zibilaren eta Larrialdien Zerbitzuetako langileen araubidea erregulatzea, eta Babes Zibilaren eta Suhiltzaileen Zerbitzuen Mahai Sektorial berekia sortzea.

Azken finean, foru legea aldatzearekin gaurkotu egiten da esparru juridikoa herritarrentzat hain garrantzitsua den gai batean, nola baita babes zibila. Eta aldatzen den legea onetsi zenetik izan-

dako eskarmentuaren nahiz Babes Zibilaren Sistema Nazionalari buruzko Lege berriaren argitan egiten da, bai eta Nafarroaren eskumen berekiak kontuan hartuta ere.

**Artikulu bakarra.** Nafarroako babes zibilari eta larrialdien kudeaketari buruzko uztailaren 1eko 8/2005 Foru Legearen aldaketa.

Nafarroako babes zibilari eta larrialdien kudeaketari buruzko uztailaren 1eko 8/2005 Foru Legea honela geldituko da:

Bat. 2. artikulua aldatzen da, eta testu hau izan den du:

“Foru lege honi dagokionez, honako definizioak hartuko dira aintzat:

Galzoria: babes zibilak zaindu beharreko pertsona-taldee edo ondasun-multzoei egoera jakin batzuetan kaltea eragiteko ahalmena.

Zaurgarritasuna: pertsona-talde edo ondasun-multzo baten ezaugarria, inguruabar jakin batzuetan galzoriak neurri handiagoan edo txikiagoan erasateko gauza direnena.

Mehatxua: babes zibilak zaindutako pertsonak eta ondasunek bizi duten egoera, zeinean berehalako edo ezkutuko galzori baten aitzinean baitaude neurri handiago edo txikiagoan.

Arriskua: mehatxu batek pertsona-talde edo ondasun-multzo bati eragiteko aukera.

Larrialdia: bat-batean sortzen den egoera, ondasunen nahiz pertsonen bizitza edo osotasun fisikoa arrisku handian jartzen dituen edo kalteztzen dituen eta berehalako neurriak hartzea eskatzen duena, arriskua eten edo kalteak murrizte aldera. Arruntak nahiz apartekoak izan daitezke.

Aparteko larrialdia: bat-bateko arrisku kolektiboko egoera, pertsonak edo ondasunak berehalako galzorian jartzen dituen gertaera baten ondoriozkoa eta botere publikoen aldetik horiek artatzeko, kalteak arintzeko eta katastrofe bihur dadin ekiditen saiatzeko kudeaketa azkarra exigitzen duena,

Larrialdi arruntetik bereizten da azken honek ez diolako talde bati eragiten.

Katastrofea: biktima, kalte eta inpaktu material ugari eragiteagatik erkidego edo gizarte baten funtzionamendua nabarmen aldatzen edo eteten duen egoera edo gertakari bat, erkidegoak eskuragarri dauzkanak baino baliabide gehiago eskatzen dituen.

Oinarrizko zerbitzuak: herritarren oinarrizko enginkizun sozialak, osasuna, segurtasuna, gizarte ongizatea eta ekonomikoa edo administrazio publikoen funtzionamendu eraginkorra mantentzeko beharrezkoak direnak.

Zoritar publikoa: biztanleengan eragin orokorra duen katastrofea.

Larrialdietako laguntza: pertsonen bizitza eta osotasun fisikoa babestea helburu duten jarduketak urgenteak, baita ondasunak eta ingurumena zaintzekoak, gizakiak nahiz naturak eragindako larrialdiak gertatzen direnean”.

Bi. 3. artikularen c), d), f), h) eta i) letrak aldatzen dira, eta testu hau izanen dute:

“c) Detekzio, alarma eta transmisio sistemak ezartzea, alerta goiztiarra eta kasu bakoitzean beharrezkoak diren prebentzio-neurriak hartzea ahalbidetuko dutenak.

d) Autobabesa sustatu eta ahalbidetuko duten neurriak hartzea, herritarrak gauza izan daitezen pertsoneri edo ondasuneri kalteak eragiten ahal dizkieten zoritarreko gertakariak aurreikusi eta horiei aurrea hartzeko eta, zorigaitza gertatuz gero, hura deuseztatzeko eta ondorioak gutxitzeko.

f) Ezbeharrak sortzen duten zergatietan batera esku hartzea, ezbeharraren hedadura eta ondorioak murrizteko eta herritarrak babesteko eta sorosteko.

h) Esku hartzeko zerbitzuak sortzea eta mantentzea eta zerbitzu horietako langileak behar bezala prestatzea”.

i) Larrialdietan kalteak jaso ditzaketen herritarrak informatzea, sentsibilizatzea eta prestatzea”.

Hiru. 4. artikuluko 1. apartatua aldatzen da, eta testu hau izanen du:

“1. Nafarroako administrazio publikoek, foru lege honen helburuak betetze aldera eta nork bere eskumenen esparruan, larrialdien kudeaketarako sistema publiko integratu eta bateratua izanen dute, egin beharreko lanak behar bezala koordinatu, zuzendu eta kontrolatzeko.

Sistema diseinatzeak neurriak abian jartzea eta baliabideak arian-arian aplikatzea ahalbidetuko du, larrialdien larritasun mailaren arabera, hala ere, moldez non horien eragingarritasuna eta efizientzia bermatuko den”.

Lau. 5. artikulua aldatzen da, eta testu hau izanen du:

“Nafarroako administrazio publikoek, beren eskumenen esparruan, babes zibilaren arloan

egin behar dituzten oinarrizko jarduketak hauek dira: arrisku egoerak aurreikusi eta horiei aurrea hartzea, plangintzak egitea, esku-hartzea, koordinatzea, zuzentzea, egoera normaltasunera ekartzea, eta herritarrei eta larrialdietako langileei informazioa eta prestakuntza ematea”.

Bost. 7. artikularen 3., 4., 5. eta 6. apartatuak aldatzen dira, eta testu hau izanen dute:

“3. Pertsonentzat edo ondasunentzat arrisku larria sortzen ahal duten jardueren katalogo bat ezarriko da erregelamendu bidez, bai eta jarduera horiek egiten diren zentroena, establezimenduen, sailena eta instalazioena ere. Horien titularrek autobabeserako plan bat eduki beharko dute, foru lege honen 15. artikuluan ezarritakoa betez, eta arriskuei aurre egiteko –gutxienez ere, suteei eta, oro har, erantzukizun zibilari– behar adinako diruarekin erantzuteko aseguruak kontratatu beharko dituzte. Katalogoan orobat ezartzen ahal da zer establezimenduk egin beharko duten nahitaez txostena beren segurtasun-egoerari buruz, establezimendua eraikitzeko lizentzia eman aitzin. Txostena lizentzia ematearen aurkakoa bada edo neurri zuzentzaileak ezartzen baditu, loteslea izanen da.

4. Larrialdi, katastrofe edo hondamendi egoerak sortzen ahal dituzten jarduerak egiten dituzten pertsonak eta enpresen eta entitateen titularrek behar bezalako babesa ziurtatzera bideratutako jarduerari buruzko informazioa eman beharko diete babes zibilaren arloko agintari eskuduneri, bai eta babes zibileko arriskuei nahiz horien bilakaerari dagokienez detektatzen duten informazioa ere.

5. Pertsona asko biltzen dituzten edo pertsonen edo taldeen joan-etorriak sortzen dituzten ikuskizun eta jarduerak egiteko, organo eskudunak sektore horretako araudiaren arabera baimena eman beharko du. Baimen eskaerarekin batera, arriskuari aurrea hartzeko eta, kasu bada, ebakuazioa egiteko aurreikusi diren giza, gauza eta antolamenduko baliabideen azalpena aurkeztu beharko da, hala nola litezkeen kalteak behar bezala estaltzeko kontrataturiko aseguruak, suteen kontrakoak eta erantzukizun zibil orokorrekoak behinik behin. Kasuan kasuko administrazio publikoaren organo eskudunak, babes zibilaren arloan, aztertu eta txostena egiten du, baimena eman aurretik. Txostena baimena ematearen aurkakoa bada edo prebentzio neurriak ezartzen baditu, loteslea izanen da. Erregelamendu bidez ezarriko da jarduera horietako zeintzutan aurkeztu beharko den autobabeserako plan bat ere.

6. Derrigorrezko hezkuntza-sistemako ikasmai-letan larrialdi egoeren gaineko prestakuntza eta

informazio jarduerak egin beharko dira eta jarduketak-simulakro bat egin beharko da urtero”.

Sei. 7. bis artikulua gehitzen da. Hona testua:

“7. bis artikulua. Alarma eta alerta sarea.

Nafarroako Babes Zibilaren Alarma eta Alerta Sarea sortzen da, larrialdi egoeren aurreikuspenarako, detekzioarako eta jarraipenerako sistema eta agintari eskudunei eta herritarrentzako informazio eta larrialdi zerbitzuei larrialdi-abisuak emateko sistema izan dadin.

Babes zibilaren arloko departamentu eskudunaren mende dagoen Larrialdien Kudeaketarako Zentroari dagokio Nafarroako Babes Zibilaren Alarma eta Alerta Sarearen kudeaketa.

Nafarroako Gobernuak departamentu guztiek eta larrialdi egoeren aurreikuspenean, detekzioan eta jarraipenean lagun dezaketen sare eta sistemetako titular diren sektore publikoko erakunde guztiek beren sistemak egokitu dituzte, Alarma eta Alerta Sarearen kudeatzaileari denbora errealean emateko daukaten informazio guztia. Alarma eta Alerta Sarearen kudeatzaileak ezarriko du zer baldintzatan eman behar den informazioa.

Larrialdi egoeren aurreikuspenean, detekzioan eta jarraipenean lagun dezaketen sare eta sistemetako titular diren gainerako erakunde eta administrazio publikoek larrialdi egoera bat eragin dezakeen egoera baten ezaguera baldin badute, berehala emanen diote horren berri Alarma eta Alerta Sarearen kudeatzaileari.

Alarma eta Alerta Sarearen kudeatzaileak erakunde eta administrazio publiko horiekiko lankidetzatza-hitzarmenak sustatuko ditu, informazioa behar bezala transmititzen dela eta sistemetan jasotzen dela ziurtatzeko.

Alarma eta Alerta Sarearen kudeatzaileak, informazioaren titularrekin lankidetzan, ezbehar-atalaseak ezarriko ditu pertsonen nahiz ondasunen kalteak eragiteko aukerari erreparatuta, eta agintariei, larrialdi zerbitzuei eta herritarrei atalase bakoitzean jakinarazi beharreko abisuak ezarriko ditu.

Alarma eta Alerta Sarearen kudeatzaileak herritarrei nahiz toki entitateei informazioa emanen die, bai modu prebentiboan bai erreaktiboan. Horretarako, abisu-kanal eta -sistemak ezarriko ditu, informazioa eraginkortasunez ematen dela bermatzeko”.

Zazpi. 8. artikulua 3. apartatua aldatzen da, eta testu hau izanen du:

“3. Onetsi bai baina gauzatu gabe dauden hirigintzako planeamenduetan, hirigintza arloko eskumenak dituen organoak, arriskupeko eremuetan, arriskuak gutxitzeko behar diren aldaketak sustatuko ditu, eta aldaketak egiterik ez badago, lizentziak baliogabetuko ditu”.

Zortzi. 8. bis artikulua gehitzen da. Hona testua:

“8. bis artikulua. Prestakuntza eta informazioa.

Administrazio publikoek, beren eskumenen esparruan, prebentzio, informazio, zabalkunde eta sensibilizazio kanpainak sustatuko dituzte arriskuei aurre egiteko eta arriskuen aurrean nola jokatu jakiteko.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak larrialdi zerbitzuetako langileen behar bezalako prestakuntza bermatuko du”.

Halaber, babes zibilaren esparruan lan egiten duten boluntarioen elkarteetako kideen behar bezalako prestakuntza bermatuko du”.

Bederatzi. 11. artikulua 3. eta 4. apartatuak aldatzen dira, eta testu hau izanen dute:

“3. Nafarroako Gobernuari dagokio, babes zibilaren arloan eskumena duen departamentuko kontseilari titularrak proposaturik eta Nafarroako Babes Zibileko Batzordearen txostena eginik, Nafarroako babes zibileko lurralde plana onestea Gobernuaren erabaki baten bidez.

4. Nafarroako babes zibileko lurralde plana lurraldearen antolamendurako baliabidetzat joko da, Nafarroako lurraldearen antolamenduari eta hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duen uztailaren 26ko 11/2017 Legegintzako foru-dekretuan xedatutakoaren ondorioetarako”.

Hamar. 14. artikulua 2. apartatua kentzen da.

Hamaika. 13. artikulua 3., 4. eta 5. apartatuak aldatu eta 6. apartatua gehitzen da, eta testu hau izanen dute:

“3. Plan bereziek ezarriko dute, kasua baldin bada, zer udalerrri dauden behartuta arrisku jakin batzuei erantzuteko udal-jarduketak planak taxuztera eta onestera.

4. Plan bereziak Nafarroako Gobernuaren erabaki bidez onetsiko dira, babes zibilaren arloan eskumena duen kontseilari titularrak proposaturik

eta Nafarroako Babes Zibileko Batzordeak aldeko txostena eman ondoren”.

5. Plan berariazkoak Nafarroarako eragin bereziko arriskuei aurre egiteko antolamenduko tresna orokorrak dira, erreferentziako oinarrizko jarraibiderik ez dutenak. Plan berariazkoetan sartzen dira oinarrizko zerbitzuetarako kontingentzia planak.

6. Plan berariazkoak babes zibilaren arloan eskumena duen departamentuak eginen ditu, foru lege honetan eta Nafarroako babes zibileko lurralde planean ezartzen diren irizpideei jarraikiz. Nafarroako Gobernuak erabaki bidez onetsiko ditu, departamentu horretako kontseilari titularrak proposaturik eta Nafarroako Babes Zibileko Batzordeak aldeko txostena eman ondoren”.

Hamabi. 13. bis artikulua gehitzen da. Hona testua:

“13. bis artikulua. Oinarrizko zerbitzuetarako kontingentzia planak.

Oinarrizko zerbitzuetarako kontingentzia planek helburu bikoitza dute:

Erkidegoarentzat oinarrizkoak diren zerbitzuen jarraitutasuna, leheneratze azkarra edo berrezartzea ahalbidetuko duten neurriak eta prozedurak aurreikustea arrisku larriko, katastrofe edo hondamendi egoeratan, jardueraren funtsezko eginkizunen biziraupena ziurtatuz larrialdian zehar eta larrialdiaren ondoren.

Neurri eta prozedura erredundanteak aurreikustea, jarduerak jarraitzea ahalbidetzeko zerbitzuaren prestaziorako sistema arruntek huts egin edo etenez gero.

Oinarrizko zerbitzuetarako kontingentzia planek honako hauek jaso beharko dituzte: arriskuen eta osagai zaurgarrien analisia eta ebaluazioa; zerbitzuaren jarraitutasunerako eta zerbitzua berreskuratzeko inaktuak eta arlo kritikoak; zerbitzuaren gutxieneko baldintzak bermatzeko baliabide erredundanteak; sistema erredundanteekin iraun dezaketen denboren analisia eta ebaluazioa; prozesu kritikoak berreskuratzeko neurriak eta horretara bideratu daitezkeen baliabideak, eta planak ezartzeko, mantentzeko eta gaurkotzeko beharrezkoak diren neurriak.

Oinarrizko zerbitzuetarako kontingentzia planak koordinatu eta osatu egin beharko dira azpiegitura kritikoak babestekoekin, araudi indardunarekin bat.

Oinarrizko zerbitzuetarako kontingentzia planen titularrek edo legezko ordezkariak babes zibilaren arloko administrazio eskudunari igorriko dizkiote plan horiek, baldin eta ur-hornidurarekin,

energia-hornidurarekin, gasolinaren eta gasolioaren hornidurarekin, komunikazioekin, saneamentuarekin eta zabor-bilketarekin zerikusirik badute, bai eta babes zibilaren arloko agintari eskudunak esaten dituenak ere. Babes zibilaren arloko administrazio eskudunak onetsiko ditu plan horiek, Nafarroako Babes Zibilako Batzordeak aldeko txostena egin ondoren.

Babes zibilaren arloko administrazio eskudunak larrialdietako zerbitzu publikoetarako kontingentzia plan bat taxutuko du”.

Hamahiru. 15. artikuluen 2. eta 4. apartatuak aldatu eta 7., 8. eta 9. apartatuak gehitzen dira, eta testu hau izanen dute:

“2. Aplikatzekoak diren arau edo planetan ezartzen dena gorabehera, autobabeserako planetan, gutxienez, honako hauek jaso beharko dira:

a) Titular erantzulearen eta Autobabeserako Planaren zuzendariaren identifikazioa.

b) Jardueraren eta jarduera egiten den instalazioen azalpena.

c) Jarduerak sortzen dituen arriskuak identifikatu eta ebaluatzea.

d) Arriskuak gutxitu edo desagerrarazteko neurriak jasotzen dituen prebentzio plana.

e) Larrialdietarako plana, egoera horietan (alarma-egoera, sorospena, jende-hustuketa, etab.) hartu beharreko neurriak eta jardunbidea jasotzen dituen.

f) Instalazioetan lan egiten dutenentzako informazio eta prestakuntza neurriak eta eduki beharreko ekipamendu egokiari buruzkoak, eta errege-lamenduz ezartzen den kasuetarako, baliabide berekiekin eraturako sorospen eta laguntza talde profesional berezitzen antolamendua.

g) Pertsona baten izendapena, autobabeserako planean biltzen diren neurrien eragingarritasunaren erantzule izateko eta babes zibilaren arloan eskumena duten agintariekiko harremanak bideratzeko.

h) Ganean dituen lurralde planekin, plan berezietan eta plan berariazkoekin koordinatzeko eta integratzeko irizpideak.

3. Autobabeserako planak onestea kasuko jarduera, instalazioa edo lekua baimentzeko eskumena duen organo berari dagokio, babes zibilaren arloan eskumena duen departamentuak aginduzko txostena eman ondoren.

4. Autobabeserako planak egin beharra duten zentro edo establezimenduetako titularrek edo



legezko ordezkariak planak eta horien aldaketak igorri beharko dituzte babes zibilaren arloan eskumena duten administrazioetara. Horien fitxa bat ere igorriko da, araudi berariazkoaren arabera erregistratu beharreko datuekin batera.

7. Autobabeserako plan bat eduki behar duten enpresen eta entitateen titularrak behartuta daude babes zibilaren arloko agintari eskudunekin lankidetzan aritzera, beren planari buruz eskatzen zaien informazio guztia emanaz, bai eta sortzen dituzten larrialdiak behar bezala konpontzeko beharrezkoak diren baliabide tekniko eta materialak ere, baldin eta instalazioen kanpoaldeari eragiten badiote. Halaber, behartuta daude beren jarduerak ukitutako ingurunean herritarren autobabeserako neurriei buruzko informazioa zabaltzen eta neurriak sustatzen laguntzera.

8. Autobabeserako plan bat eduki behar duten enpresen eta entitateen titularrak behartuta daude, babes zibileko zerbitzu publikoen arloko agintari eta arduradunek hala eskatzen badiete, lan prebentibo edo operatibo guztietan parte hartzera; deitzen zaien bileretara joatera, eta agintari jakinaraztera planak nahiz planaren operatibitateak estalitako arrisku egoerari eragiten dion inguruabar oro, baita autobabeserako plana abiarazi izana ere.

9. Segurtasun gaietan behar bezala gaitutako titulu teknikoetan graduatutako langileek idatzi beharko dituzte autobabeserako planak, jardueraren enpresa edo entitate titularraren erantzukizupean, eta foru lege honen arabera informatu, homologatu eta onetsi beharko dira, erregelamendu bidez ezartzen denarekin bat, plan-mota bakoitzaren arabera”.

Hamalau. 16. artikulua 2. apartatua aldatzen da, eta testu hau izanen du :

“2. Nafarroako Gobernuak erregelamendu bidez osatzen ahalko du udaletako edo udalez gaindiko babes zibileko planen, plan berezien eta plan berariazkoen eta autobabeserako planen edukien egitura, salbu eta Nafarroako babes zibileko lurralde planean agertzen bada”.

Hamabost. 20. artikulua 4. apartatua gehitzen da, eta testu hau izanen dute:

“20. artikulua. Koordinazioa eta zuzendaritza.

4. Foru lege honen 41. artikuluan aipatzen den Larrialdien Kudeaketarako Zentroa izanen da, kasuko planak abiarazi ostean, larrialdi arrunten koordinazio eta zuzendaritza zentroa eta aparteko larrialdien koordinazio zentroa, halako moduan non bere inguruan egituratuko baita Foru Komunitatearen intereseko edo esparruko planen

zuzendaritza arduratuko den aginte-postu nagusia”.

Hamasei. 25. artikulua f) apartatua gehitzen zaio, eta testu hau izanen du:

“f) Alarma eta Alerta Sareari laguntzea, foru lege honetan ezarritako moduan”.

Hamazazpi. 26. artikulua h) apartatua aldatzen da, eta testu hau izanen du:

“h) Larrialdietan esku hartzeko zerbitzu berekiak ezarri eta mantentzea”.

Hemezortzi. 29.2. artikulua b) eta c) apartatuak aldatzen dira, eta testu hau izanen dute:

“b) Nafarroako babes zibileko lurralde planari, plan bereziei eta berariazko planei buruzko txostena ematea.

c) Udaletako eta udalez gaindiko babes zibileko lurralde planei buruzko txostena ematea”.

Hemeretzi. 30. bis artikulua berria gehitzen da III. kapituluaren –Herritarren lankidetzaren–. Hona:

### III. KAPITULUA Herritarren lankidetzaren

“30. bis artikulua. Babeserako eskubidea katastrofe bat gertatuz gero.

1. Nafarroako Foru Komunitatean bizi diren pertsona guztiek daukate administrazio publikoen laguntza jasotzeko eskubidea larrialdi bat, ohikoa nahiz apartekoa, gertatuz gero, muga bakar batekin: egoera horiek berezkoak dituzten baldintza arriskutsuak eta esku hartzeko baliabideen eskuragarritasuna.

2. Botere publikoek begiratuko dute herritarrek larrialdi kasuan jasotzen duten laguntza baliokidea izan dela, non bizi diren alde batera utzita.

3. Larrialdi kasuan, zerbitzu publiko eskudunek ahal den azkarren identifikatuko dituzte biktimak, eta informazio zehatza emanen diete haien familiariekoei eta hurbilekoei”.

Hogei. 31. artikulua aldatzen da, eta testu hau izanen du:

“31. artikulua. Informazioa jasotzeko eta parte hartzeko eskubidea.

1. Herritarrek beraiengan eragina izan dezaketen arrisku kolektibo larriei buruzko informazioa jasotzeko eskubidea dute eta, orobat, haien kausa eta ondorioei buruz, arriskuei aurre egiteko aurreikusita dauden jarduketari buruz, hartu beharreko segurtasun neurriei buruz eta segitu beharreko jokabideari buruz.

2. Informazio horiek larrialdi kasuan nahiz prebentiboki eman beharko dira, galzori egoerak presente egotera iritsi aitzin.

3. Informazioak ezin izanen du legedi indardunak babestutako datu babesturik inolaz ere jaso.

4. Botere publikoek begiratu dute berariazko neurriak hartzen direla ziurtatze aldera desgaitasunen bat duten pertsonak arriskuak eta autobabeserako nahiz prebentziorako neurriak ezagutzen dituztela, larrialdi kasuan laguntza eta informazioa jasotzen dutela eta babes zibileko planetan parte hartzen dutela.

5. Herritarrek babes zibileko lanetan laguntzeko eskubidea dute, babes zibileko planetan zehaztua dagoen bezala.

6. Babes zibilaren arloko eskumena duten administrazio publikoekiko ohiko lankidetzak honako bidez bideratuko da: babes zibileko talde eta erakundeak, suhiltzaile boluntarioenak eta foru lege honetan aurreikusitako babes zibileko oinarriko jarduketak bermatzeko behar diren beste guztiak.

7. Edozein herritarrek eman dezake larrialdi egoera bat eragin dezaketen inguruabar edo jardueren berri, babes zibilaren arloko eskumena duen zuzendaritza nagusian edo haren bulego periferikoetan horren inguruko frogagiriak aurkeztuz”.

Hogeita bat. 32. artikulua aldatzen da, eta testu hau izanen du:

“32. artikulua. Betebeharrak

1. Herritarrek, adinez nagusiak direnez geroztik, babes zibileko lanetan laguntzera beharturik daude, giza indarra eta baliabideak eskainiz, planetan ezarritakoaren arabera edo agintari eskudunen jarraibideen arabera. Betebehar horrek, funtsean, eginkizun hauek dakartza: prebentzio eta autobabeserako neurriak betetzea, simulazioetan parte hartu beharra, eskatzen zaien lanetan esku hartzea eta, arrisku kolektibo larriko egoeretan, larrialdietan, katastrofeetan edo hondamendi publikoetan, agintari eskudunek ezartzen duten giza laguntza ematea.

2. Herritarrek behartuta daude agintari eskudunei informazioa ematera kasuan-kasuan aplikatu beharreko araudian ezarritako moduan eta edukiarekin eta, oro har, arrisku egoerak sortzen edo areagotzen ahal dituzten inguruabarrei buruz.

3. Herritarrek behartuta daude araudi indardun xedatutakoaren arabera ikuskaritzak egitera; halatan, ikuskaritzari beren lokaletan edo establezimenduetan sartzeko utziko diote.

4. Herritarrek behartuta daude arriskuak sortzea nahiz arriskuan jartzea ekiditeko beharrezkoak diren neurriak hartzea. Behin larrialdia gertatuta, zerbitzu publiko eskudunetako agenteen jarraibideen arabera jokatu beharko dute.

5. Norberak nahitaez eman beharreko zerbitzuak egoeraren arabera edo norberaren gaitasunaren arabera izanen dira eta beharrezkoa den denbora iraunen dute. Ez dute kalte-ordainak jasotzeko eskubiderik sortuko, salbu eta prestazioa dela kausa laguntza-emailearen ondasun edo eskubideetan sortzen diren kalteen ondoriozkoak.

6. Larrialdien izaerak beharrezkoa egiten baldin badu, babes zibilaren arloko agintari eskudunek aldi baterako bahitzen ahalko dute ondasun-mota oro, eta beharrezkoak direnak behin-behinekoz esku hartzen edo okupatzen ahal izanen dituzte eta, kasua bada, jarduerak eten. Jarduketa horien ondorioz beren ondasunetan eta zerbitzuetan kalteak pairatzen dituztenek legeetan ezarritakoaren arabera kalte-ordaina jasotzeko eskubidea izanen dute.

7. Larrialdien izaerak beharrezkoa egiten baldin badu, babes zibilaren arloko agintari eskudunek herritarren eskubideak ukitzen dituzten aginduak eta jarraibideak ematen ahalko dituzte legeetan ezarritakoaren arabera, eta neurriak hartzen ahalko dituzte, agindu eta jarraibide horien jasotzaileek nahitaez bete beharrekoak aplikatzeko den planak ezarritakoarekin bat edo larrialdiaren nahiz babestu beharreko ondasunen beharrezko horretara behartuz gero.

8. Hartzen diren neurri eskubide-murriztaileek, edo prestazio pertsonalak edo materialak ezartzen dituztenek, indarraldi mugatua izanen dute – larrialdiei aurre egiteko hertsiki beharrezkoa dena, hain zuzen ere– eta larrialdien muntaren arabera izan beharko dute”.

Hogeita bi. 33. artikulua aldatzen da, eta testu hau izanen du:

“33. artikulua. Laguntza emateko betebehar bereziak.

1. Pertsonen eta haien ondasunen prebentzio, laguntza, sorospen eta segurtasunarekin zerikusia duen jardueran aritzen diren entitate publiko edo pribatuak bereziki beharturik daude esku-hartzeko zerbitzuekin batera laguntza ematera larrialdi egoeretan.

Entitate horiei egitekoak esleitzen ahal izanen zaizkie babes zibileko planetan, eta babes zibilaren arloko agintari eskudunek eskatzen ahal izanen diete larrialdietan esku har dezaten.

2. Ondasun publikoen gaineko eskubideen entitate titullarrak edo zerbitzu publikoak nahiz interes orokorrekoak kudeatzen dituztenak –berezi, beren jarduna osasun-zerbitzuei lotuta baldin badago edo uraren, gasaren nahiz elektrizitatearen moduko oinarrizko banaketa eta hornidura kudeatzen badute– eta telefoniako eta telekomunikazioetako zerbitzuak ematen dituztenak bereziki behartuta daude larrialdi egoeretan esku-hartze zerbitzuei laguntzeko.

Entitate horiek bereziki behartuta daude administrazio eskudunari uztera beren jarduerak betetzeko eskura dauzkaten baliabide materialak eta pertsonalak erabil ditzan, larrialdi egoerei aurre egiteko beharrezkoa den neurrian.

Alerta eta larrialdi egoeretan, telekomunikazio sareen eta zerbitzuen enpresa titullarrek babes zibileko agintarien esku jarri beharko dituzte sare eta zerbitzu horiek, herritarrei abisuak eta alertak emateko nahiz esku-hartze zerbitzuen jarduna errazteko.

3. Larrialdi kolektiboetan, katastrofeetan edo hondamendi publikoetan, komunikabide pribatu eta publikoek babes zibileko agintariak ematen dituzten informazio, ohar eta jarraibideak doan hedatu beharko dituzte, oso-osorik eta, lehenbait lehen eta berri horiei lehentasuna emanez, beharrezkoa baldin bada informazioa zein agintariki eman duen adieraziz”.

Hogeita hiru. 34. artikulua aldatzen da, eta testu hau izanen du:

“34. artikulua. Babes zibileko boluntarioak.

Babes zibileko boluntarioek larrialdiak kudeatzen laguntzen ahal izanen dute, gizarteak gertakari horiei emandako erantzunaren erakusgarri, aplikatzekoak diren arauetan ezarritakoarekin bat eta herritarrek laguntzeko duten betebeharrak orokorra ezertan ere galarazi gabe.

Boluntarioek babes zibilaren esparruan egindako jarduerak boluntario horiek sartuta dauden entitateen bidez eginen dira, boluntario-lanari buruzko araubide juridikoarekin eta boluntario-lanak azpian dauzkan balioekin eta printzipioekin bat, eta haien jarraibideei lotuz, eta horien laguntza ez da inolaz ere gauzatuko administrazio jardulearekiko lan-harreman baten bidez.

Boluntarioek babes zibilaren arloan egindako jarduerak laguntza ematekoak eta larrialdietako zerbitzu publikoen mendekoak izanen dira beti, eta haien zuzendaritzapean jardunen dute soilik.

Foru Komunitateko administrazioak eta udalek larrialdietarako boluntarioen taldeen ekimenak

bideratuko dituzte, babes zibilaren arloan egiten duten lanari buruzko informazioa eman eta zabalteko eta boluntarioen lana goresteko kanpainak eginez eta boluntarioei prestakuntza eta laguntza teknikoa emanez.

Babes zibileko boluntarioen elkarteek Boluntarioei buruzko martxoaren 27ko 2/1998 Foru Legean ezarritakoari segituko diote eta babes zibilaren arloan eskumena duen departamentuan erregelamenduz ezartzen diren erregistroetan izena eman beharko dute.

Babes zibileko boluntarioen elkartearen erregistroan izena emateko, beharrezkoa izanen da aurretiaz Foru Komunitateko Administrazioarekiko lankidetzat-hitzarmen bat sinatzea. Erregelamendu bidez ezarriko da hitzarmen horien edukia, zeinak honako hauek jasoko baititu gutxienez ere: bere baliabideak haren eskura jartzea; laguntzeko eta parte hartzeko modua eta halako kasuetan legozkiekeen konpentsazioak, eta entitate horien giza baliabideen prestakuntza kreditatua.

Boluntario-laneko elkarte bateko eskubide osoko boluntario gisa babes zibilaren eta larrialdien kudeaketaren arloan prebentzio- eta operazio-lanetan parte hartzeko beharrezkoa izanen da babes zibilaren eta larrialdien arloko departamentu eskudunaren kreditazioa edukitzea; hartara, beharrezkoa izanen da erregelamendu bidez ezartzen diren curriculum-gaitasunak edukitzea lan horiek egiteko.

Boluntarioen talde eta erakundeetako kide diren boluntarioek aseguru bat izanen dute, kasuan kasuko erakundearen kargura, eginkizunak betetzeak dakartzan istripu arriskua eta erantzukizun zibila bere gain hartuko dituenaren”.

Hogeita lau. 37. artikulua 2. apartatua aldatzen da, eta testu hau izanen du:

“2. Administrazio publiko eskudunek kanpoko langileen laguntza teknikoa izaten ahaliko dute, horiek ikuskatzaitzat hartu gabe inola ere”.

Hogeita bost. 39. artikuluko 2. apartatua kentzen da. Honela geldituko da idatzita:

“39. artikulua. Larrialdiak kudeatzeko sistema publikoa.

Larrialdi egoeretan laguntza materiala ematearekin zuzen nahiz zeharka lotutako jarduerak ematen diren administrazio eta entitate publikoak larrialdiak kudeatzeko sistema publikoaren parte dira eta beharturik daude betetzera foru lege honek dakartzan betebeharrak, bai eta erregelamenduzko garapenean eta kasuan kasuko protokolo operatiboetan ezartzen direnak ere”.

Hogeita sei. 39. bis artikulua gehitzen da. Hona testua:

“39. bis artikulua. Babes zibileko larrialdietan esku hartzeko eta laguntzeko zerbitzuak.

Honako hauek dira babes zibileko larrialdietan esku hartzeko eta laguntzeko zerbitzuak:

a) Babes Zibileko Zerbitzua eta Larrialdien Kudeaketarako Zentroa.

b) Ospitalez kanpoko larrialdi zerbitzuak, ospitaleetako larrialdi zerbitzuak eta oinarrizko osasun laguntzakoak, ospitale eta osasun etxe publikoak eta osasuneko garraio publiko eta hitzartua, hala nola osasun zerbitzu publikoak.

c) Nafarroako administrazio publikoetako prebentzio, su-itzaltze eta salbamendu zerbitzuak.

d) Nafarroako Foruzaingoa eta Nafarroako toki entitateetako poliziak.

e) Errepide eta herrilantetako mantentze zerbitzuak eta ingurumena babestekoak

f) Gizarte zerbitzuak.

Estatuko segurtasun kidego eta indarrak, eta larrialdien kudeaketa xede duten Estatuko Administrazioaren Zerbitzuak.

Babes zibileko boluntarioen elkarteek eta toki entitateen mende dauden suhiltzaile boluntarioek zerbitzu publikoen mende jardunen dute.

Telekomunikazioen, uraren, gasaren eta fuel-olioren eta argindarraren sareen hornidura, mantentze eta zainketa zerbitzuak, eta oinarrizko zerbitzuen beste hornitzaile batzuk”.

Hogeita zazpi. 40. artikuluan 3. apartatua alda-tu eta 4. apartatua gehitzen da, testu honekin:

“3. Zerbitzu publiko hori Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak emanen du zuzenean, babes zibilaren arloan eskumena duen departamentuaren zuzendaritzaren eta kontrolaren pean.

4. Nafarroako Foru Komunitateko bi hizkuntza ofizialetan emanen da zerbitzua. Babes zibilaren eta larrialdien arloko departamentu eskudunak beharrezkoak diren baliabideak jarriko ditu zerbitzua Europar Batasuneko hizkuntza ofizial batzuetan baliatu ahal izateko, bai eta desgaitasunen bat duten pertsonen zerbitzua baliatu ahal izatea ziurtatuko duten mekanismoak bermatzeko ere”.

Hogeita zortzi. 41. artikuluan 3. apartatua kendu eta bi apartatu gehitzen dira, testu honekin:

“3. Larrialdien Kudeaketarako Zentroa larrialdien eta babes zibilaren kudeaketaren arloko departamentu eskudunari atxikiko zaio.

4. Larrialdien eta babes zibilaren kudeaketaren arloko departamentu eskudunak ezarriko ditu Larrialdien Kudeaketarako Zentroaren eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioako eta beste administrazio publiko batzuetako larrialdi-zerbitzuetako aginte eta koordinazio zentron arteko lotura ahalbidetuko duten informatikako eta telekomunikazioetako estandar teknikoak”.

Hogeita bederatz. 41. bis artikulua gehitzen da. Hau izanen da artikulua idazkera:

“41. bis artikulua. Larrialdien Kudeaketarako Zentroaren eginkizunak.

Nafarroako Gobernuak, erregelamendu bidez, zentro horren eginkizunak, antolamendua eta funtzionamendua arautuko ditu.

Erregelamendu bidez ezartzen diren eginkizun-enez gain, Larrialdien Kudeaketarako Zentroari honako hauek dagozkie:

a) Larrialdietako deiak hartzeko zerbitzua ematea 112 telefono zenbaki bakarraren bidez.

b) Beharrezkoak diren zerbitzuen koordinazioa eta bateragarritasuna kudeatzea eta teknikoki aldeatzea.

c) Larrialdiaren bilakaeraren kontrola eta jarraipena egitea.

d) Babes zibileko informazio eta alerta sarearen transmisioen komunikazio, kontrol eta koordinazio sisteman parte hartzea.

e) Koordinazio operatiboko zentrorako eta koordinazio operatibo integratuko zentrorako balio izatea larrialdi egoera bat deklaratzeko denean, babes zibileko kasuan kasuko plan autonomikoa abiarazi ostean, plana formalki abiarazi duen babes zibileko agintari eskudunaren zuzendaritzapean”.

Hogeita hamar. 41. ter artikulua gehitzen da. Hau izanen da artikulua idazkera:

“41. ter artikulua. Datuak bildu eta tratatzea Larrialdien Kudeaketarako Zentroan.

1. Herritarrek eta erakundeek Larrialdien Kudeaketarako Zentroarekin dauzkaten elkarrizketak, bai telefono bidezkoak bai irrati bidezkoak, grabatu egingen dira.

2. Larrialdi bat kudeatzeko prozesuarekin lotu-tako jarduketak eta komunikazioak –telematikoa, telefono bidezkoak nahiz irrati bidezkoak izan– Larrialdien Kudeaketarako Zentroaren kudeaketa sisteman erregistratuta geratuko dira, halako moduan non larrialdi-gorabeheren kudeaketari buruzko datuen gaineko informazio ofizialeko elementu bihur baitaitezke.

3. Datu pertsonalen babesari buruzko legeria indardunarekin bat bilduko eta tratatuko dira larrialdi-gorabehera bat kudeatzeko eta kasuan-kasuan laguntza emateko jarduketa materialak egiteko beharrezkoak diren datu pertsonalak eta informazioa.

Honako kasu hauetan biltzen ahalko dira datu pertsonalak: borondatez lagatzen direnean edo pertsonen nahiz kaltetuaren edo hirugarrenen osotasuna eta ondasunak babesteko edo kaltetuaren edo hirugarrenen bizi-premia bati erantzuteko beharrezkoak direnean.

Legedi indardunaren arabera babestuta gorde beharreko bestelako informazio batzuk ere biltzen ahalko dira baldin eta larrialdiari erantzuteko edo beharrezkoa den laguntza materiala emateko moduari begira erabakigarriak badira.

4. Larrialdien Kudeaketarako Zentroak kasuko zerbitzu guztien eskura jarriko du larrialdi-gorabehera baten kudeaketarako informazioa, larrialdia kudeatzearen ondorioetarako soilik. Izaera pertsonaleko datuak horien esku jarriko dira bakar-bakarrik pertsonen osotasuna edo bizi-premia bat babesteko nahitezkoak direnean.

5. Legedi indardunak eta foru lege honek espresuki ezarritako kasuetatik at, ezin izanen da laga deiak hartu eta kudeatzeari esker eta horien ondorioz gorabeherak eta emandako laguntzek izandako garapenari esker ikasitako datu pertsonalik.

6. Larrialdien Kudeaketarako Zentroak kudeatutako gorabeheren grabazioak eta erregistroak gutxienez ere sei hilabetez eta gehienez ere bi urtez gordeko dira, agintaritzak judizialak besterik agindu ezean.

7. Larrialdien Kudeaketarako Zentroak kudeatutako gorabeheren grabazioak eta erregistroak ezin izanen dira laga legedi indarduneari ezarritako kasuetatik at.

8. Larrialdien Kudeaketarako Zentroaren arduradunak behar diren neurriak hartuko ditu teknika, kudeaketa eta antolamendu aldetik, datuen isilekotasuna, segurtasuna eta osotasuna bermatzeko eta ukitutako pertsonen legedi indardunak aitortzen dizkien eskubideak baliatu ahal izateko”.

Hogeita hamaika. 41. quater artikulua gehitzen da. Hau izanen da artikulua idatzera:

“41. quater artikulua. Babes Zibileko eta Larrialdien Kudeaketarako Zerbitzuetako langileen araubidea.

1. Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutua nahiz estatutu hori garatzen duen araudia eta Larrialdien Kudeaketarako Zentroaren eginkizunak, antolamendua eta funtzionamendu-araubidea izanen dira Larrialdien Kudeaketarako Zentroari atxikitako langileen araubidea.

2. Babes Zibilera Zerbitzuari atxikitako langileak edo Larrialdien Kudeaketarako Zentroa koka-tzen ahal den zerbitzuari atxikitako langileak izanen dira betiere zentroan operadore edo salako nagusi modura zerbitzu ematen duten langileak, Larrialdien Kudeaketarako Zentroaren funtzionamendua arautzen duen foru dekretuan ezarritakoarekin bat. O-NOZeko medikuek edo/eta EUDek ematen ahalko dute zerbitzua zentro horretan osasun arloko koordinazio-lanetan, bai eta Nafarroako Suhiltzaileen Zerbitzuko arduradunek ere, zentroaren funtzionamendua arautzen duen foru dekretuan ezarritakoarekin bat.

3. Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutua nahiz estatutu hori garatzen duen araudia izanen dira segurtasun arloko goi mailako funtzionario teknikoaren araubidea, honako berezitasun hauekin:

Beren eginkizunak betetzen ari direnean, agintaritzako agentearen izaera izanen dute.

Esklusibotasun araubidean eta arduraldi, erabilgarritasun eta lan-ordutegi bereziarekin lan egin dezaten errekeritzen ahalko zaie, beren ardurapeko zerbitzuek urteko egun guztietan hogeita lau orduz etenik gabe funtzionatzen dutela bermatzeko xedez”.

Hogeita hamabi. 43. artikuluko 2. apartatua aldatzen da. Honela geldituko da idatzita:

“2. Protokolo operatiboak Larrialdien Kudeaketarako Zentroak taxutuko ditu eta babes zibilaren arloaren eskumena duen zuzendari nagusiak onetsiko ditu, parte hartzen duten baliabideen titularrarekin adostu ondoren”.

Hogeita hamahiru. 44. artikuluari bigarren paragrafo bat erantsiko zaio. Testu hau izanen du:

“Halako eskudantziarik ezean, Babes Zibilera Zerbitzuari egokituko zaizkio, segurtasun arloko goi mailako teknikarien bidez, larrialdiaren kudeaketan inplikaturako zerbitzuen jardunaren zuzendaritza eta koordinazioa, zeinak zerbitzu

operatiboek bertan dauzkaten agintariei eskuordetzen ahal izanen baitzaizkie, gorabeheraren izaera zein den”.

Hogeita hamalau. 45.2. artikulua h) eta j) apartatuak aldatzen dira, eta testu hau izanen dute:

“h) Larrialdietako osasun garraiatzeak esleutako baliabide berekiekin.

j) Uretako eta ur azpiko salbamenduak eta mendiko erreskate eta salbamendu teknikoak, zeinetan behar bezala prestatutako eta kualifikatutako langileek –horretarako berariaz sortuko diren laguntza-talde berezietan sartutakoek– parte hartuko baitute”.

Hogeita hamabost. 54. artikulua 7. apartatua gehitzen zaio, eta testu hau izanen du:

“7. Su-itxaltze eta Salbamendu Zerbitzuetako lanpostuak betetzeko ezartzen diren proba fisikoe-

tan genero-berdintasuna zaintzeko neurri egokiak hartuko dira”.

**Azken xedapenetan lehena.** Abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru-dekretuaren bidez onetsitako Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu bategina aldatzea.

Aipatutako testu bateginaren 83. artikulua 3. puntuari apartatu bat gehitzen zaio. Hona testu berria:

“f) Babes Zibil eta Suhiltzaile Zerbitzuei atxikitako langileak”.

**Azken xedapenetako bigarrena.** Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra.

---

**E saila:**  
**INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da urtarrilaren 16ko 5/2006 Foru Dekretuan eranskin bat sar dezan baserri motako etxebizitzaren bizigarritasuna arautzeko.**

**ESKUBIDE SOZIALETAKO BATZORDEAK ONETSIA**

Nafarroako Parlamentuko Eskubide Sozialetako Batzordeak, 2018ko abenduaren 4an egindako bileran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da urtarrilaren 16ko 5/2006 Foru Dekretuan eranskin bat sar dezan baserri motako etxebizitzaren bizigarritasuna arautzeko”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du:

1. Etxebizitza eta hirigintza-antolamenduaren arloko araudi indarduna berrikus dezan, Nafarroako Foru Komunitatean dagoen tipologia arkitektoniko anitza zaharberritzerakoan izaten diren lege-oztopo ugarietara irtenbidea aurkitzeko.

Horretarako, martxoaren 22ko 142/2004 Foru Dekretuaren 1. eranskinean ezarritako baldintzak zorrozki bete behar izatetik salbuetsiko ditu balio historiko, tipiko edo tradizionala dela-eta ondare

eraikia babesteko araudiaren xede diren etxebizitzak, eraldaketak galarazten dituztenean, hala nola araudi horren bidez eskatzen diren baoen tamaina eta tipologia, edota bestelako elementu babestuenak.

2. Etxebizitza eta hirigintza-antolamenduaren arloko araudi indarduna berrikus dezan, landa tipologia etxebizitzaren arloko jarduketara babesgarrii malgutasun handiagoa emateko.

3. Nafarroako landa eremuetako etxebizitza tradizionalen problematikari buruzko diagnosi eta azterketa tekniko bat egin dezan, eta hori prestatzeko parte hartzeko aukera eman diezaien Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioari eta arkitekturarekin eta eraikuntzarekin zerikusia duten elkargo profesionalak. Azterketa hori bost hilabete epean egin behar da, eta ebazpen honen aurreko apartatuetan aipatutako aldaketak egin aurretik”.

Iruñean, 2018ko abenduaren 5ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

